

**Hezkuntza publikoan  
lan baldintzak hobetu.**  
Hemen eta orain erabakita.

**Prentsa oharra:**  
**Urtarrilak 28ko greba balorazioa**

## **Haurreskolak Partzuergoko grebak %85etik gorako jarraipena izan du**

LAB, STEILAS eta ELA sindikatuok deitutako grebak jarraipen zabala izan du. 1.500 haur hezitzaile eta kudeaketa alorreko langile daude gaurko grebara deituak. Hala ere, beste behin ere, salatzea da Eusko Jaurlaritzak ezarritako **gehiegizko gutxieneko zerbitzu** direla eta **hamarnaka langileri greba eskubidea ukatu zaiela**, batez ere Haurreskola txikietako haur hezitzaileei, eta ondorioz, greba bera baldintzatua geratzen dela.

Bestalde, aipatu behar dugu **atzo arratsaldean greba zikloa bertan behera uzteko saiakera** egin zuela Hezkuntza Sailak, orain arte mahai gainean egon diren edukiak txertatuta zituen aurreakordio proposamena ekarriaz bat batean deitutako mahai negoziatzaile batera.

Aipagarria da hainbat eta **hainbat haurreskolek %100ean greba babestu** izana, esaterako:

- **Araban:** Gurutzmendi, Landaberde, Mariturri, Katagorri eta Bernedo.
- **Bizkaian:** Mungia, Portugalete, Zaldibar, Bilboko Deustu eta Sanchez Marcos.
- **Gipuzkoan:** Urretxu-Zumarraga, Hernani, Lasarte, Deba eta Donostiako Bidebieta eta Ategorritxo.

Grebaren arrakastaren adibide garbia da Eibarren **"Lan baldintzak hobetu, hemen eta orain erabakita!"** lelopean deitutako manifestazioan ehundaka langile elkartu izana.

**Hezkuntza Sail berria dugu**, eta honekin batera, **Zuzendaritza Batzorde berritua**. Azken urteetako **jokamolde berbera** dute, Haurreskolak Partzuergoaren langileon lan baldintzak arautzen dituen 2009ko lan hitzarmena berritzeko eduki nahikorik gabeko mahaiak deitu eta etengabe luzatzen dituztelarik.


Greba hauetako aldarrikapenei erantzungo dieten proposamenak mahai gaineratzeko eskatu diegu gaur sindikatuak, besteak beste; **lan zamak** arindu, **gazteberritze plana** negoziatu eta adostea, **erosahalmena** berreskuratu, **enplegua egonkortu eta bermatzea**, ordezkoen lan baldintzak eta langile guztion lizentziak eta baimenak hobetzea eta **lan osasuna, berdintasun eta euskara planak** garatzea.

Gaurko egunari jarraipena emanez, **bihar ere greba eguna** dugu Haurreskolak Partzuergoan eta **kontzentrazioak** burutuko ditugu **EAEko hiru hiriburu**etako **Hezkuntza ordezkaritzetan**, goizeko 11:30ean.

**LAB**

**steilas**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA



**Mejora de las condiciones laborales en la educación pública.**

Decididas aquí y ahora.

**Nota de prensa:**

**Valoración de la huelga del 28 de enero**

## **La huelga en el Consorcio Haurreskolak ha tenido un seguimiento superior al 85%**

La huelga, convocada por los sindicatos LAB, STEILAS y ELA, ha tenido un amplio seguimiento. Están llamadas a la huelga 1500 educadoras y el personal de gestión. Sin embargo, una vez más, denunciamos que se tratan de unos **servicios mínimos abusivos** los decretados por el Gobierno Vasco y que **a decenas de trabajadoras se les ha negado el derecho a la huelga**, sobre todo a las educadoras infantiles de los centros pequeños, lo que hace que la huelga en sí esté condicionada.

Por otro lado, debemos señalar que ayer por la tarde **el Departamento de Educación intentó que desconvocáramos el ciclo de huelga**, aportando una propuesta de preacuerdo con los contenidos que hasta ahora han estado sobre la mesa.

Es de destacar el **gran número de centros que han apoyado al 100% la huelga**, entre otras:

- **Araba:** Gurutzmendi, Landaberde, Mariturri, Katagorri y Bernedo.
- **Bizkaia:** Mungia, Portugalete, Deusto, Zaldibar y en Bilbao: Deusto y Sanchez Marcos.
- **Gipuzkoa:** Urretxu-Zumarraga, Hernani, Lasarte, Deba y en Donostia: Bidebieta y Ategorritxo.

Un claro ejemplo del éxito de la huelga es la manifestación convocada en Eibar bajo el lema **“Lan baldintzak hobetu, hemen eta orain erabakita!”**

Contamos con un **nuevo Departamento de Educación**, por tanto, una **renovada Junta Directiva**, nos encontramos con la **misma forma de actuar que en años anteriores**, mesas que se demoran en el tiempo, con contenidos insuficientes para renovar el convenio laboral del 2009 que regula las condiciones laborales del personal del Consorcio Haurreskolak.

Pedimos que pongan sobre la mesa propuestas que respondan a las reivindicaciones de estas huelgas. Agilizar las **cargas de trabajo**, negociar y acordar el plan de **rejuvenecimiento**, recuperar el **poder adquisitivo, estabilizar y garantizar el empleo**, mejorar las condiciones laborales de las personas sustitutas, mejorar las licencias y permisos, desarrollar **planes de salud laboral, igualdad y euskera**.

Continuando con la jornada de hoy, **mañana también tenemos jornada de huelga** en el Consorcio Haurreskolak y realizaremos **concentraciones en las delegaciones de Educación de las tres capitales de la CAV**, a las 11:30 de la mañana.

**LAB**

**steilas**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA